

**Urretxu** » Lekaio kultur taldeak buruhandi talde berria aurkeztuko du Santa Anastasia jaietarako; euskal bandoleroen gaia aukeratu dute pertsonaiak irudikatzen eta datorren astean aurkeztuko dituzte ikuskizun batekin.

## Bidelapurrak Urretxun

ALEX AREIZAGA

**U**rretxuko Santa Anastasia jaiak izaera berezia hartuko dute aurten. Euskal Jaiaren 50. urteurrenako ospakizunei Lekaio kultur taldeak aurkeztuko duen buruhandi talde berria batuko zaie. Euskal bandoleroen gaia aukeratu dute pertsonaia berriak egiteko, eta sei izango dira dena jaietako konpartsara batuko diren bandoleroak: *Bizarbeltz*, *Giñi*, *Frantses Txikia*, *Eder*, *Galtxagorri* eta *Patakon*.

Lekaio kultur taldeko kideen hitzetan buruhandien eta erraldioen egoera geroz eta txarragoa zen. «Konponketa ugari egin zaizkie eta egoera horren aurrean argi genuen elementu berriak egiteko garaia iritsi zela». 2006an aurkeztu zioten Urretxuko Udalari pertsonaia berriak egiteko proposamena. Ordutik 2006an eta 2007an erraldoi berri bana egin dituzte, eta aurten buruhandien txanda izan da. Mikel Ibarzabal bergararra ari da pertsonaia berriak egiteko lanean, eta dagoeneko azken ukituak ematen ari da.

### Deskargako bidelapurrak

Euskal bandoleroen gaia aukeratzeko hainbat irizpide jarraitu dituzte, «gaiaren erakargarritasuna eta Euskal Herriarekin edota gure herriarekin duen lotura» esaterako. «Udaletxeko artxiboan kontsulta batzuk egin ondoren, XIX. mendean Deskargako mendatean eta inguruetan bandolerismoaren eragina oso handia zela ikusi genuen. I. Karlistaldiaren aurretik Urretxun eta inguruetan ekintza eta lapurreta ugari egin zituzten bandoleroek, eta gaia oso interesgarria iruditu zitzaigun», gogoratu dute Lekaio kideek. Horrela, festetako buruhandien bidez Euskal Herriko historiaren «pasarte garrantzitsu eta ezezagun bat» azaltzera animatu dira.

Pertsonaiak aukeratzeko orduan «ospe handia izan zutenak» hartu dituzte kontuan. Tartean emakume bat ere sartu dute, «bandoleroek emakumeen laguntza ere jasotzen baitzuten».

Urretxuko udal artxiboaren arduradun Koldo Argandoñaren laguntza izan dute dokumentazio lanean, hark idatzia baita *Gipuzkoa duela 200 urte* liburuko *Urretxu duela 200 urte: bidelapurren kontakizunak* kronika. Hala dio Argandoñak testuan: «Normalean, fusil nahiz eskopetaz armaturiko hiruzpalau gizon agertzen ziren arren, kasu batzuetan Euskal Herriko makilaz baliatzen ziren gaizkileak ere suertatu izan ziren. Su armak zeramatzaten kideen atzetik geratzen ziren makiladunak,



Mikel Ibarzabal Eder buruhandiarekin lanean. LEKAIKO

normalean bigarren mailan. Edonola ere, aurpegia zikinduta zeramaten, ezagutu ez zitzaten, eta hemengo janzkera erabili ohi zuten». Zumalakarregi Museoko arduradun Mikel Alberdikarekin eta *Bandoleros Vascos* liburuaren egile David Zapirainekin ere izan dituzte elkarriketak.

### Aurkezpen didaktikoa

Buruhandi berrien aurkezpena datorren astean egingo dute, hilaren 10ean eta 11n. «Era didaktiko-

an gure historiaren pasarte garrantzitsu eta ezezaguna dena azaltzeko ere baliatu nahi dugu aurkezpena. Hilaren 10ean, osteguna, hitzaldia egingo dute David Zapirain idazlearekin. Buruhandi taldea hilaren 11n aurkeztuko dute Urretxuko Iparragirre plazan. 22:00etan hasiko dute ekitaldia eta «orain 200 urteko egoera» nolako zen musikaz, kantuz eta antzerki bidez azaltzeko baliatuko dute hitzordua.


Kontuz, bada, bidelapurrekin.

### SEI BANDOLERO, HAMAIIK AISTORIO

Sei bandolero aukeratu dituzte buruhandi taldean irudikatzen. *Bizarbeltz*, *Giñi*, *Frantses Txikia*, *Eder*, *Galtxagorri* eta *Patakon*. Guztiak ere Euskal Herriko benetako bandoleroak izan ziren.

*Bizarbeltz* oiartzuarra zen eta XVII. mende hasieran bidelapur talde garrantzitsua osatu zuen Hernani eta Astigarraga inguruan. *Giñi* irundarra zen. 1800. urtean sona handiko lapurreta burutu zuen, Hernanin sartu eta herri guztia hartu zuenean. Donostiako plaza nagusian hil zuten garrotea erabiliz. *Frantses Txikia* Mugerren (Lapurdi) jaiotako zen, eta Giñiren taldekidea eta laguna izan zen.

*Eder* da taldeko emakume bakarra. «Frantses Txikiaren maitalea zen» diote Lekaio kultur taldekoek; «bandoleroek lapurtutako produktuak azoketan saltzen zituen». *Galtxagorri* tolosarrak *Oreja* bandoleroarekin batera talde sendoa osatu zuen. Amerikara ere joan ziren, eta han beste hainbat lapurreta egin zituzten. *Patakon* bizkaitarra zen, Galdakaon jaioa. «Sarritan sartu zuten kartzelan, baina beste bandoleroen antzera gehienetan ihes egitea lortu zuen. Oraindik Larrabetzuko zaharrenek horrela diote: 'Patakon, dekonari kendu eta ez dekonari emon'».



Hazarkuma eta aharien enkantea ere egingo dute igandean Legazpin. M. LUKI

## Artzainen lanbidea omenduko dute igandean Legazpin

**Legazpi** » Gipuzkoako Artzain Eguna ospatuko dute, tartean herrialdeko Ardi Gaztaren 25. Lehiaketa ospatuz.

A. AREIZAGA

Igandean, irailak 6, Artzain Eguna ospatuko dute Legazpin. 09:30ean irekiko dute azoka eta goiz osoan zehar artisaien postuak erakusketak eta lehiaketak izango dira urtero artzaintzari ohore egiten dion festaren osagai. Artzainak omenduko dituzte.

Goizeko ekitaldien artean Gipuzkoako Ardi Gaztaren 25. lehiaketa eta ardikia prestatzeko Gipuzkoako 20. txapelketa ospatuko dira, baita gaztetxoaren gazta lehiaketa ere. Artisaien postuak ez dira faltako: burdinlangintza, egur tailak, goarniziotzintza, nekazaritza tresnak, haria, makilak, saskiak eta sukaldarako egurrezko tresneria nola egiten diren ikusi ahalko da.

Ardi okela banatuko dute, eta gazta dastaketa herrikoia ere egingo dituzte. Aurten ere neska-mutleiei ardiak mozteko aukera emango zaie.

Eguerdian herri bazkaria izango da jubilatuen egoitzan, eta joateko interesa duenarentzat txartelak azokan bertan salduko dituzte goiz osoan zehar. Arratsaldean, azkenik, Gipuzkoako 41. Artzain Txakurren Lehiaketa ospatuko dute Urtatzako zelaian. urteerako bidean.

### Artisauentza mintzagai

Artzain Eguna testuinguruan mahai-ingurua egingo dute gaur 19:00etan Legazpiko kultur etxean. *Artzain munduaren inguruko artisautza* izenburupean Peio Arruabarrena eta Karmele Aduriz artisauak izango dira hizlari.

Biak igandean Legazpiko azokan izango dira, eta omenaldia ere egingo diete, lau artzain gipuzkoarrekin eta Amerikan lanean aritu ziren beste laurekin batera.

## Laburrak

### Odola emateko jubilatuen egoitzan dago aukera bihar

**LEGAZPI** • Bihar arratsaldean odol emateko Legazpiko Gizarte Zentroan eman ahalko dute odola. 18:00etatik 20:00etara egongo dira elkartekoak. 18 urtetik gorakoek eta 50 kilo baino gehiagoko pisua dutenek joan ahal izango dute odola ematera.

### Arrantza lehiaketan izena emateko epea irekita dago

**URRETXU** • Urretxuko Goierri eta Zumarragako Galeperra elkarteek Elkartearen Arto V. Itsas Arrantza lehiaketa antolatu dute hilaren 13rako. Zumaiako kai mutur berrian jokatu dute lehiaketa,

09:00etatik 14:00etara bitartean. Hilaren 9ra arte eman ahal izango da izena Urretxuko Goierri elkartearen egoitzan, 3 euro ordainduta. Parte hartu ahal izateko nahitazkoa izango da arrantzarako bai-mena izatea.

## Iragarki laburrak

### DENETARIK

■ **Aurkikuntza.** Joan zen larunbatean Aralar mendian Nokia markako telefono mugikorra aurkitu genuen. Galdu duenak telefono zenbaki honetara dei dezala: 615 73 88 69.